



## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKADIKO TOKI ENTITATEEN TXOSTENARI BURUZKOA, 2005**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Euskadiko Toki Entitateen gaineko txostena jaulki du, 2005eko ekitaldiari buruzkoa. Txostena aho batez oniritzi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Erakunde fiskalizatzaileak EAEn udalen eta udalaz gaindiko entitateen Kontu Orokorrak aztertu ditu, eduki formala eta toki alorraren finantza egoera balio-neurtzen duela. 250 udaletatik 247 udalen Kontuak aztertu dira eta udalaz gaindiko 60etatik, 50enak. Armiñongo udalak ez ditu beste behin kontuak aitortu HKEEren aurrean; gainera, Otxandio eta Ondarroako udalek ere ez dituzte 2005eko ekitaldiari dagozkion kontuak aurkeztu.

Udalen finantza egoerari dagokionez, txostenak azpimarratu du 2005/12/31n erabilitako batez besteko zorpetzea udaleko sarrera arrunten gainean % 3,91koa izan dela. Honela, bada, biztanleko batez besteko zorpetzea 220 eurokoa da. Guztira 71 udalek ez dute zorpetzerik eta 39 udalek, berriz, batez bestekoa gainditzen dute. EAE mailan eta batez besteko terminoetan, 2005eko ekitaldiko sarrera arrunt eta funtzionamendu gastuen zifrekin eskuratzen den aurrezki gordinak lau aldiz zorpetze handiagoa jasateko bide emango luke.

Halaber, termino globaletan, inbertsio garbiak aurreko ekitaldiarekiko % 8ko beheraldia izan duela azaleratu da.

Presio fiskala (udal zergak, tasak eta bestelako sarrerak) biztanleko euroetan neurtuta 431ra arte igo da, 2004ko ekitaldiari dagokionaz % 1,4 azpitik kokatzen dela.

Udalaz gaindiko erakundeei dagokien zorpetzeak % 3 egin du behera aurreko ekitaldiarekiko, 442 milioi euro arte. Zor honen zatirik handiena, % 83, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren titulartasunekoa da eta Bilboko Metroa eraikitzeko erabiltzen da.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak txostenean adierazi du entitate hauek ematen dituzten zerbitzuen kostua, uraren hornidura eta saneamendua, garraio eta baso aprobetxamendua salbuetsita, nagusiki horietan partaide diren udaletatik edo beste erakunde batzuetatik jasotako diru-laguntza arrunten bitartez finantzatzen dela eta gogorarazi du, kudeaketa hobetzeko zerbitzuen kostuaren analisisia egin behar litzatekeela eta elkartutako erakundeei prezioetan eragin behar litzaikeela. Jokabide honek zerbitzuen eragimen maila zehazten lagunduko luke, eragiten dituzten mentsak edo superabitak abiaburu hartuta.

Txostenaren atal argigarrietan udalen arteko hainbat alderaketa egin dira, biztanleria geruza eta dagokien Lurralde Historikoaren arabera sailkatuaz. Amaitzeko, txostenari txertatu zaizkion hainbat eranskinetan, udalen eta udalaz gaindiko erakundeen kontuen informazio banakakoa eman da eta Kontu Orokorraren osaerari eta aurkezpenari dagokionez, haiek dituzten obligazio formalak betetzeari buruzkoa.